



EEBB: lehendakaritzarako hauteskundeak

ERREAKZIOAK

■ **EK:** Jacques Delors Batzordeko presidentea «aurrekaririk izan ez duten erronkei» aurre egiteko Europa eta EEBBen arteko kooperazioa bultzatzearen alde azaldu zen «emaitza eraginkorrak lortzeko».

■ **ERRESUMA BATUA:** Clintonek kargua hartu bezain laister Etxe Zuria bisitatzeko nahia azaldu zuen John Major lehen ministroak bi estatuen arteko harreman «bereziei» eusteko. EEBBen aliatu nagusia European Erresuma Batuak izaten segituko duela gaineratu zuen Majorrek.

■ **FRANTZIA:** Amerika eta Europaren arteko adiskidetasuna aberastuko delako itxaropena azaldu zuen François Mitterrand presidentea, zoriontzeko Bill Clintoni igorritako telegraman. Beste karta batean lau urteko kooperazioa eskertu zion Georges Bushi eta bere adiskidetasun pertsonala azaldu.

■ **ALEMANIA:** Bushek Alemaniako batasunaren alde eginiko lana goraiatu ondoren, EEBBeko Gobernu berriarekin harreman onak izateko eta lankidetzan sakontzeko asmoa azaldu zuen Alemaniako Gobernuak. Nazioarteko segurtasun politikan betekizun garrantzitsua jokatzen segituko dutela EEBBek ziurtatu zuen Klaus Kinkel Kanpo Arazoetarako ministroak.

■ **ERRUSIA:** bi Estatuen arteko kooperazioari eutsi nahi diotela eta Clintoni iritzi berekoa esan zuen Boris Ieltsin presidentea «Errusia-EEBB harremanetan lorpen berriak eskuratzeko». Hain zuzen ere, erreforma ekonomikoak laguntzeko eskaera egin zion.

■ **ESPAINIA:** Gobernuak oso positibotzat jo zituen EEBBekin dituzten harremanak, «historiako onenetarikoak», Javier Solana ministroak esan zuenez, eta presidente demokratikarekin harreman horiek indartuko direlako itxaropena agertu zuen.

■ **JAPONIA:** Clintonek irabazi ostean, EEBBekin harremanak hobetu nahi dituztela esan zuen Michio Watanabe kantzilerrak. Bere ustez, presidente demokratik «lidargo intelektual eta politikoa» dauka eta aldaketak gidatutako aro honetan lider mundiala izateko eskatu zion.

■ **MEXIKO:** aldebiko harremanen zenbait arlotan bat datozela Clinton eta Mexiko azpimarratu zuen Mexikoko Gobernuak, hala nola bertan eginiko eraldaketan aurrean Clintonek azalduetako jarrera ona. Hau dela eta, baikor azaldu zen harremanen etorkizunaz.

■ **NATO:** Clintonen agindupean erakundearen «lider tinkoa» EEBB izaten jarraitzea nahi duela NATOk esan zuen Manfred Woerner idazkari nagusiak.

Erasoak utzita lehendakari berria laguntzeko prest agertu da Bush

Porrota onartu eta Clinton zoriondu egin zuten funtziotako lehendakariak eta Perotek

Erasoak eta lehiak amaituta porrota onartzeko unea iritsi zaie Lehendakaritza lortu ez duten bi hautagaiei. George Bushek erasoak utzi eta Bill Clinton lehendakaria zoriondu zuen, Gobernu berriaren iragapenerako laguntza eskaintzearekin batera. Ross Perotek ere txalotu egin zuen Arkansaseko gobernadorea.


JONE LARRAÑAGA / DONOSTIA

Kanpaina luzeak eragindako nekea eta porrotaren seinalea aurpegian zuela zoriondu zuen George Bushek Estatu Batuetako herritarrek aukeratu duten lehendakari berria. Abuztuaren errepublikarren konbentzioan hauteskundeak irabaziko zituztela ziurtatu zuen leku berean, Houstonen, onartu zuen Bushen porrota.

«Herrialde guztia bere lantaldearekin elkarlanean arituko dela jakinarazi nahi diot Clintoni, boterearen iragapena lasaitasun giroan burutu dadin», adierazi zuen George Bushen funtziotako lehendakari gisa eginiko lehen adierazpenetan.

Inkestek, prentsak eta kritikoez arrazoia zutela azaldu dute hauteskundeetako emaitzek. Golkoko Gerraren ostean Estatu Batuetako lehendakari batek inoiz izan duen popularitate mailarik handiena izan zuen lehendakariak, ezin izan du aukera honetan legegintzaldia lau urte gehiagorako luzatu.

Bushek Clintonen sinesgarritasunaren aurka egindako salaketak entzungor, Arkansaseko gobernadoreak proposaturiko «aldaketaren» aldeko apostua egin dute, ekonomiari akuilukada emango diona bera dela sines-tuta.



George Bush bere esperientzia eta laguntza eskaini dizkio Clintoni.

Lehendakari aukeratuak egin duen kanpaina bikainak eskaini diezaguke Bill Clintonen mezuak herrian izan duen babesaren gakoa. Bush Administrazioaren aurka herriak duen sentimendua areagotu eta hauteslekuetara eramanez zuten konbentzitu ditu Clintonek hautesleak.

Errepublikarrek ere, azpimarratu egin nahi izan zuten Arkansaseko gobernadoreak egin duen

kanpaina ona. «Lehendakaritza, kanpaina bezalako modu bikainean eramaten badu lasai egon gintezke», aitortu zuen Dan Quayle, Alderdi Errepublikarrak Lehendakariordetzarako aurkeztu duen hautagaia.

ROSS PEROT EUFORIKO Estatu Batuetan galtzaile bihurtzen da Lehendakaritza eskuratzeko aukerarik izan ez

✓ Dan Quayle: «Lehendakaritza kanpaina bezain modu bikainean eramaten badu lasai egon gintezke»

duen hautagaia. Aurtengo honetan ordea, lehian izan den hirugarren hautagaia lehian sartu izanak arras aldatu ditu gauzak.

Texaseko industriari miloiak ez du lehendakaria aukeratzeko boto elektoral bakar bat ere lortu. Hala ere, demokrata eta errepublikarren alternatibek gogobete ez dituzten hautesleak % 19ren babes jaso du Perotek.

Ez du, ez, «EEBBek inoiz ikusi duten garaipenik zabalena» eskuratu. Baina, azken 80 urteotan hautagai independente batek izan duen emaitzarik onenak eragindako euforiaz zoriondu zuen Estatu Batuetako lehendakari berria.

Clintonek artean lehendakari izateko beharrezkoak diren 270 boto elektoralak eskuartean ez zituenean onartu zuen hautagai independenteak Arkansaseko gobernadorearen garaipena. «Herriak hitz egin egin du eta Clinton gobernadoreak aukeratu. Eman diezaiozun txalo bero bat», eskatu zuen milioiunak bere jarraitzaileen aurrean.

George Bushen bezala, Perotek berarengan ohizkoa egin den barrearekin eman zizkion zorionak lehendakari berriari. Dallasen eginiko mitinean pozik agertu zen texastarra eta bere emaitzarekin dantzatzeko abilezia ere agertu zuen.

Hauteskunde hauetan izan duen «porrot txikia» onartu arren, «jarraitzaileek nahi duten bitartean jarraituko dut» agindu zuen Perotek, eta hauteskunde hauek amaiera edota guztiaren hasiera izan diren galdetu zion bere buruari.

Berraukeratu gabeko bostgarrena

George Bushen, behin-behinean bada ere oraindik EEBBeko lehendakari denak, ezin pentsa zezakeen Golkoko gerraren amaieran bere agintaldiak lau urte besterik beteko zituen. Orduan % 90eko arrakasta lortu zuen Etxe Zuriko buruzagiak eta hurrengo hauteskundeetan izugarriak garai-pena izango zuela aurreratu zuten askok. Hauteskundeak baina, agintaldi bat baino gehiago iraun ez duen mende honetako bostgarren lehendakari bihurtu dute George Bush.

Errepublikarrak Estatu Batuetako agintaritzara iritsi baino lehen, Jimmy Carter izan

zen berraukeraketan jokoz kanpo geratu zen lehendakaria. 1980ko hauteskunde haietan hautagai demokratik Ronald Reagan gailentzea lortu ez eta hamabi bat urte iraun duen epealdi errepublikarrari eman zion paso.

XX. mende honetan baina, izan dira euren legegintzaldia lau urte gehiago luzatzea lortu izan ez duten beste hiru lehendakari ere. Gerald Ford 1976. urtean, Herbert Hoover 1932an eta William Howard ek ere galdu egin zuten Etxe Zurian bigarren legegintzaldia betetzeko izan zuten aukera.

Amaitzean dagoen mende honetan zehar

berraukeratu dituzten lehendakarietatik, bost izan ziren errepublikarrak —Ronald Reagan azkena— eta beste bost Alderdi Demokratikoak.

Gizaldiaren erdialdera lortu zuen Franklin Rooseveltek mende amaieran inork oraindik lortu ez duena: hiru legegintzalditan izan zen demokrata Estatu Batuetako lehendakari.

Bertako Konstituzioaren arabera, bi legegintzaldi baino gehiago ezin ditzake bete lehendakariak jarraian. Tartekatua badira ordea, hamasei urte ere egin ditzake buruzagi batek Etxe Zurian.